



3 UDALA Erasoak gaitzetsi zituzten udaleko alderdiek

Ohiko udalbatzarra izan zen asteartean eta bertan eztabaidatutako gaien artean, PPK aurkeztutako mozioa egon zen. Honetan euren egoitzetan eta hiri altzarrietan zenbait herritan gertatutako erasoak salatu zituen. Bilduk gai beraren inguruan beste mozio bat aurkeztu zuen eta biak onartu zituzten alderdiek.

5 KULTURA Zirkuitu musikala herriko tabernetan bihar

Lasarte-Oriako Zirkuitu musikalararen eskutik, larunbatean 19:00etatik gaueko ordu txikiak arte, estilo desberdinetako musikaz gozatzeko aukera izango da. Erdiguneko bost tabernetan antolatu den jaialdian herritar guztiak haiei gustuko musika aurkitzeko aukera izango dute. Lasarte-Oriako Zirkuitu musikaleko antolatuzaileek jaialdira hurbitzera gonbidatzen dituzte herritarrak.



Aniztasun astea 21etik 28ra

Egitarau oparoa izango da Okendo plazan jarriko den karpa handian

Lasarte-Oriako herriko hainbat elkarteren laguntzarekin Aniztasun Astea antolatu du udalak abenduaren 21etik 28ra. Okendo plazan jarriko den karpa erraldoian Lasarte-Orian dagoen aniztasuna islatzen duten ekitaldi ugari izango da.

Lasarte-Oriako Udalak eta hainbat elkarrek abenduaren 21etik 28ra Okendo plazan egingo den Aniztasun astearen aurkezpena egin zuten asteazkenean.

Lasarte-Oriako alkatea Pablo Barriok azaldu zuenez, "hainbat elkarerekin elkarlanean aritu gara, "aniztasun sare" bat eratze aldera. Orain, egiten ari garen lan hau guztia azalerratez nahi dugu, eta bizi garen errealitate anitz hau batzuetan saihesten duguna, argitara agertzea". Horretarako, Aniztasun Astea ospatuko da.

Karpa

Lasarte-Oriako Udalak Okendo plazan karpa erraldoi bat jarriko du eta honen baitan elkarrek antolatutako ekintzekin gozatu ahalko da.

Karpa Udalararen hainbat apustu bateratzearen emaitza da. Batetik herriko elkarrek antolatzen dituzten jarduerak sostengatzea, bestetik herrian kontsumoa sustatzea eta azkenik, Eguberrietako programa lasarteoriatar guztiak irekitzea, aniztasuna landuz.

Egitaraua

Honela, urtero legez, abendua-



Pablo Barrio alkatea eta Aniztasun astea osatu duten herriko hainbat elkarreetako ordezkariak jaialdiko kartelarekin.

ren 21ean eta 24an arratsaldean, Ttakun elkarrek antolatutako Santo Tomas azoka eta Olentzeroren etorrera jaialdia izango dira.

Sendoki elkarerekin eskutik abenduaren 22an egun osoz, Gabonetako azoka izango da. Honetan herriko denden, zein artisauen produktuak eta elikagaiak erostez gain, Nikaragua zein Italiako jakiak ere izango dira eskuragarri.

Gastrokulturala ekimena izango da ere abenduaren 26tik abenduaren 28ra. Step ikasleen kooperatibaren eskutik herritarrek ikasteko tartea izango dute. Txikiak sukaldean bere lehen pausok emaitzaketa, helduek berriz, Afrika, Hego Amerika eta Erdialdeko

Amerikako lurraldeetako gastronomietako errezetak ikasi edo bereak partekatzeko aukera izango dute. Honetaz gain, Lasarte-Oriako nazio aniztasunean oinarritutako pintxoak ere dastatu ahalko dituzte.

Musikak ere izango du bere lekua. Abenduaren 28an, larunbatean, Xpression-ek antolatuta eguerditik gaueko ordu batak arte, Argentina, Britaina Handia, Australia, Brasil edo Dominakar Errepublikako musikarien kontzertuak entzuteko aukera izango da.

Hau guztiaz gain, abenduaren 28an, arratsalde partean, "Anitzen sarea" osatzen lagunduten elkarrek guztiak batzen dituen ekitaldi bat egingo dela ere aurreratu zuten.

Ekintzak zehazteko

Hala ere, Udal ordezkari eta "Anitzen sarea"-ko Markel Ormazabalak aurkezpenean azaldu zuten, hauek ez dira egun horietan egingo diren ekintza bakarrak izango.

Herriko beste elkarrek batzuz ere, Sasota-Zumaburu guraso elkarrek, Lasarte-Oriako sahararrek, Ostadar kirol elkarrek... bere harritxoak jarriko dute egitaraua osatzeko.

Gainera egitaraua guztiak osatzeko dagoela jakitera eman zuten, "elkarrekin proposamenak biltzen ari gara oraindik eta egitaraua ahalik eta azkarren lotzea espero dugu" eta ezustekoak izango direla ere aurreratu zuten.

EUROMIKEL'S, S.L.

N-1 Ctra 441 km, 34 Polg.
20150 Villabona
Tel.: 943 360850
943 365401
boxes@euromikels.com
www.boxeseuromikels.com

Hazlo tú mismo

ALQUILER DE BOXES

OFERTA ESKAINTZA!

943 360850

Urtero KOTXEA, MOTO edo FURGONETARI ERREBISIOA egiten edo OLIOA aldatzen, **zergatik hainbeste ordaindu?**

Hiru aukera dituzu:

zuk egiten duzu

zuk gurekin ikasiz

guk egiten dugu

DEITU ETA ESKATU PREZIOAK KONPROMEZURIK GABE

Neure kabuz



Jone M. Hernandez

Gu ere bertsotan

Lerro hauek argitaratzen direnean Bertsolari Txapelketa Nagusiaren finalaren atarian izango gara. Datorren igandean ia hiru hilabeteko ibilaldiari amaiera jarriko zaio Barakaldon, *Bilbao Exhibition Center* (BEC) delakoan. Final horretara iritsi aurretik bertsozaleek, antolatzaileek eta bertsolariek kilometro asko egin dituzte sailkapen fase ezberdinetan egin diren saioak direla eta. Euskal Herriari bira eman diote. Jarraipena egin ahal izan dugunontzat hori egite hutsa zortea izan da. Villabonan hasi eta Maulen bukatu, eta tartean, Gernika, Oiartzun, Oion edota Hendaia bezalako herriak bisitatu ditu bertso txapelketak. Eta toki bakoitzean plaza berezi bat sortu da, bere giro eta ezaugarriekin. Bakoitza berezia eta bakoitza ezberdina, baina denen artean nolabaiteko soka osatuz. *Korrika* bezalako ekimen batean gertatzen den antzera.

Aurtengo edizioan Lasarte-Orian ez da txapelketaren saiorki izan, baina horrek ez du esan nahi herria bertso mugimenduen parte ez denik. Abenduak 5ean, esate baterako, finalean arituko diren bi bertsolari, Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus, Arrieskalleta Elkartearen aritu ziren bertsotan bertan antolatu zen afarian. Beraiekin batera beste bertsolari bat aritu zen: Andoni Egaña. Bereak dira, hain zuzen ere, ondorengo hitzak -TXINTXARRIKO kazetariari esanak-: *BEC izaten da mugimendu guztiaren erpina, ikusgarriena baina BEC ez litzateke emango bertso eskolarik gabe eta tokian tokiko bertso mugimendurik gabe*. Eta hori da, zalantzarik gabe herriko ekarpena bai bertsolaritzari, bai euskarari: bere bertso-eskola, bere bertsolariak, bere bertsozaleak, eta batez ere, *Gu ere bertsotan* egitasmoan parte hartzen duten haurrak. Beraientzat bereziki bertsoa hitzen jaia eta jolasa da. Euren eguneroko BEC txiki horretan gozatzen jarrai dezatela.

Zorion agurrak



Maite
Mila zorion zure senarra eta semearen partetik. Urte askotako!



Haizea
Zorionak Haizea!!! 10 zorion familiaren partetik.



Izaro
Zorionak zure laugarren urtebetetzean! Marrubizko mila muxu!



Aitor
Muxu pottolo pottolo asko, aitatxo ta amatxoren partetik, zure lehenengo urtebetetzean!



Zuriñe
Urte bat gehiago, belarritik tira, opariak jaso... Ondo pasa ezazu zure 7. urtebetetzean maite zaitugu eta!!!



Maitane
Gazte izatea pribilegioa da. Ederra izatea ondua. Xarmangarria izatea zure bertute onena!



Naroa
Zorionak printzesa. Oso ondo pasa eta segi orain arte bezala. 13 muxu goxo. Gure partetik, zuk badakizu ...



Saioa
Bilbaina! Iritsi da hainbeste itxoiten ari zinen eguna! 18 muxu goxo etxekoan partetik!



Ganix
Zorionak txapeldu!!! Txokomarrubizko hiru muxu handi familia guztiaren partez!!!



Oier
Zorionak txapeldu!!! Sei muxu goxo zure anaia eta familiaren partetik!



Josu
Zorionak zure laugarren urtebetetzean eta muxu handi bat etxekoan partetik!



Nahia
Zorionak sorgiña eta txokomarrubizko lau muxu handi zure familiaren partez!!!



Ander
Zorionak zure 15. urtebetetzean, amatxo, aitona-amona eta famili guztian partetik. Oso ondo pasa



Goizatz
Zorionak! Oso ondo pasa zure 7. urtebetzean etxekoan partetik.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- Etxebizitza alokatzen da Sasoeta auzoan. 2 logela ditu eta berogailua etxe osoan. 649526766
- Pisua bilatzen da, alokairuan. 500 edo 600 eurotan. 627 059 625.
- Garaje itxia salgai Loidi kalea 2.zenbakian. 600 414 331 Joxean
- Garaje marra alokatzen da Atsobakarren, Garaikoetxea ikastetxe parean. Sarrera erraza du, handia eta merkea da. 943 36 54 76/659 021 945

Salerosketak

- Toyota Yaris 1.4 DYD 90cv diesela saltzen da 8.000eurotan. 60.000km ditu. Harremanetarako 646 620 843 Idoia
- CITROËN C4 1.6VTR PLUS 110CV salgai. 2007 urtekoa da, diesela eta extrekin. Miguel, 947 503 231.

Lan-eskaria

- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin, haurrak edo pertsona adinduek zaintzeko. Externa edo orduka. Esperientzia du. Harremanetarako, 610 147 291.
- Egunez, orduka edo asteburuetan lan egingo nuke. 633 047 767/642 818 480
- Pertsona helduak zainduko nituzte, orduka edo interna moduan. Asteburuetan ere. 620 607 184.
- Emakumea eskaintzen da haurrak edo pertsona adinduek zaintzeko. 42 urte eta erreferentziak ditu. 611 309 462
- Paperak dituen emakumea pertsona adinduek zaintzeko eskaintzen da edozein ordutegitan. Geriatzia kurtsua eginda. 628 51 77 45
- Lana bilatzen dut garbiketan edo adinekoen zaintzan gaudetan, asteburuetan edo orduka. 634 419 681

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Aner Delgado Jimenez, abenduaren 5ean.
- Carlos Nicolas Cerron Llanto, azaroaren 28an.
- Miriam Gallego Martin, azaroaren 27an.

Heriotzak

- Juani Izagirre Iribar, abenduaren 10ean.
- Iker Iradi Diaz, abenduaren 9an, 43 urte zituela.
- Pedro Mari Beldarrain Lugo, abenduaren 5ean, 82 urte zituela.

Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

- Ostirala, 13 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6 943 363549
- Larunbata, 14 De Miguel, Kale Nagusia 32 943 371151
- Igandea, 15 De Miguel, Kale Nagusia 32 943 371151
- Astelehena, 16 Urbistondo, San Franzisko 1 943 366567
- Asteartea, 17 Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9 943 019521
- Asteazkena, 18 Orue, Jaizkibel plaza 2 943 362652
- Osteguna, 19 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6 943 363549

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Aldabe, Perkaiztegi 8
Hernani, Tel.: 943 336 022

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Laguntzailea



Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttaker Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidar Azumendi, Nerea Eizagire, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odnozola, Jone M. Hernandez, Oihana Salazar, Pako Aizpitarte, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

UDALA

Erasoen aurka udalbatzarra

Beste herrietan gertatutakoak gaitzetsi zituzten alderdiek

Ohiko udalbatzarra izan zen asteartean eta bertan eztabaidatutako gaien artean, PPK aurkeztutako mozioa egon zen. Honetan euren egoitzetan eta hiri altzarrietan zenbait herritan gertatutako erasoak salatu zituen. Bilduk gai beraren inguruan beste mozio bat aurkeztu zuen "ikuspegi globalago batekin" eta biak onartu ziren.



Giza Eskubideen eguna izanda, alkateak testu bat irakurri zuen hauen aitortza eginez.

TXINTXARRI

Giza eskubideen aldeko aitortzarekin hasi zuen alkateak ohiko udalbatzarra. Nazioarteko Giza eskubideen eguna izaki, alkateak hauen aldeko testua irakurri zuen, "gizaki guztiok eskubide hauen jabe gara" azpimarratuz. Jarraian gai ordenari ekin zioten.

Lehenengo puntuan aurreko bilkuren aktak onartu behar izan zituzten alderdiek. PSE-EEko Jesus Zaballosek hitza eskatu eta adierazi zuen urriaren 4ko batzarrarekin "ez gaude ados, ostiral batean ez ohiko deialdi bitartez egin zen udalbatzarra eta asteartean ohikoa genuen, halakoe-tan uste dugu ez zela beharrezkoa". Hala ere, argi utzi zuen akten edukiarekin ados zegoela talde sozialista.

Hurrengo puntuan EAJk Euskararen egunaren harira aurkeztutako emendakina izan zen eztabaidagai. Hainbat konpromiso hartzeko eskatu zuen honen bidez, besteak beste "gure udalak bermatu eta defendatu beha-

rreko da euskara gero eta gehiago udal honetan lan hizkuntza izateko, udalean euskararen erabilera sustatuz eta bermatuz, alkate eta zinegotziek euskararen erabilera aldeko jarrera erakutsiz, eta euskaraz jarduteko gai diren herri-langileek beren lanean euskararen erabilera areagotuz". Baita euskara sustatzeko ekimenak gauzatu eta sustatzeko konpromisoa hartu zen ere. Alderdi guztiak aldeko bozka eman zuten.

Erasoen aurka

Vanessa Velez PPKo zinegotziak aurkeztu zuen euren egoitzetan eta hiri altzarrietan aurka gertatutako erasoerik buruzko mozioa. Bilduko zinegotziek abstentzioaren alde egin zuten eta gainontzekoek mozioa babestu zuten. Aldi berean, Bilduk urgentziako mozio bat aurkeztu zuen gaiaren inguruan "ikuspegi globalago bat behar duela uste dugu".

Nerea Sanchezek, alderdiek urgentziakotasuna onartuta, irakurri zuen "azken asteotan izandako indarkeria gertakizunen aurrean, besteak beste PP alderdiaren aurkako

Barakaldoko eraso, preso senideek zenbait espetxe atarrietan jasotako erasoak, ondoko adierazpena egiten dugu: Lasarte-Oriako Udaleko Batzarrak Giza Eskubideen urraketa suposatzen duten gertakizun horien aurrean bere kontrako jarrera argia adierazten du eta era berean adierazten du indarkeria adierazpen horiek erabat zentzu gabekoak direla gaur egun Euskal Herriak bizi duen egoera kontuan hartuz. Lasarte-Oriako Udaleko Batzarrak berrestu egiten du Udal honek askotan adierazitako Giza eskubide guztien aldeko apustua eta giza eskubide guztien errespetua ezinbestekoa dela".

PPko zinegotziak aipatu zuen bere alderdiak bat egin zezakeela testuarekin "baina sarreraren hainbat eraso maila berean jartzen dira eta ez zait iruditzen parekatu daitezkeenik". PP eta PSE-EE abstenitu ziren baina gainontzekoen aldeko bozkarekin onartu zen testua.

Bukaeran herritar batek Lasarte-Oria izenetik Oria kentzearen beharrez jardun zen udal ordezkarien aurrean.

IRTEERA

Olentzeroren etxera bisita

Abenduaren 23an, astelehenean Olentzeroren etxera irteera antolatu du hirugarrenez Amaraunek. Izenaduba Basoak Lasarte-Oriako umeak hartuko ditu Olentzeroren etorrera eguneko bezperan.

Bertan Olentzero beraren etxea ezagutzeaz gain, euskal mitologiako hainbat pertsonaia ezagutzeko aukera izango dute joko eta jolas dibertigarri bidez. Ez dira faltako hauen artean puntako teknologiak 3D simulagailu eta guzti.

Mungian, Bizkaian, kokatutako dago Izenaduba basoa eta honetara antolatuzaileek azpimarratu moduan, joan ahal izango dira 2009, 2008, 2007 eta 2006 urteetan jaiotako haurrek. Goizeko 10:00etan aterako dira autobusean Zumaburuko jubilatuen egoitza pareko autobus paradatik eta 15:30ean inguru bueltatuko dira. Irteera leku berean jaso beharko dira umeak.

Haurrek hamaiketako eta bazkaria eraman beharko dute etxetik. Irteera honetan parte hartzeko aurrez izena eman beharko da Ttakuneko bulegoan. Plazak mugatuak dira, beraz ahalik eta lasterren lekua hartzea gomendatzen dute antolatuzaileek. Ttakuneko bazkideek 22 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek, 25 euro.

IKASTAROA

Janari manipulatuzaile ikastaroa

Elkolab. S. Coop. enpresak, Lasarte-Oriako Udalaren Osasun sailarekin elkarlanean, janari-manipulatuzaile ikastaro berri bat emango du. Arrisku handiko elikagaiak erabiltzeko balioko du eta ostalaritzako sektoreari zuzendua da Osasun Sailak eskatzen duen autokontrolaren inguruko edukiak baititu.

Ikastaroa abenduaren 16an izango da Osasun Zentroko bigarren solairuan dagoen erabilera anitzeko aretoan. Ordutegia 09:30etik 13:30era izango da. Prezioa pertsonako 45 eurokoa da; langabetuentzat berriz, 35 euro (erregimen orokorrean dauden pertsonak hobariak izan ditzakete). Informazio gehiago jaso edo izena emateko 943 361 605 edo 943 533 303 zenbakitan.

MEGABA

Errege Magoen marrazki lehiaketa

Megaba elkarteak marrazki lehiaketa antolatu du. Gaia "Errege Magoak" da eta 3 eta 12 urte bitarteko umei zuzendutakoa da. Honetara marrazki bakarra aurkeztu daiteke eta adinaren arabera hiru talde egingo direla azaldu dute antolatuzaileek. Adin kategoria bakoitzean saritu bat egongo da eta hiru horietatik aterako da irabazlea. Hau Errege Magoak iragartzeko erabiliko den kartelean agertuko da.

Marrazkiak paperezko formatuan A4 tamainakoa eta tolestu gabe, erlieberik gabekoak izan beharko dira. Umearen datuak jarriko dira marrazkiaren atzean baita ama, aita edota legezko tutorearen datu pertsonalak ere, izen-abizenak, helbidea, posta elektronikoa eta harremanetarako telefonoa. Abenduaren 20a da marrazkiak aurkezteko azken eguna eta hauek Manuel Lekuonan jarri den postontzi berezian utzi beharko dira.

Euskarazko produktuen katalogoa eskura

Opariak egiteko momentuan gaude eta eskura izaten dugun produktu aukera zabalaren aurrean zer erosi aukeratzeko lan zaila izaten da askotan.

Erosketa hauek errazteko parada eskaintzen du www.katalogoa.org web orrialdeak. Honetan euskarazko produktuen katalogo zabalagoa jaso-tzen da guztia adinka sailkatuta. Euskarazko musika, filmak, komikiak, jostailu eta jolasak daude aukeran.

Jostailuak, liburuak, musika... zein da aukeran opari egokiena? Zaila da erant-

zuna topatzea baina euskaraz oparitzea badaogoela kontutan izan beharrekoa da izan ere, egun euskaraz mota askotako produktuak ditugu eskura ez soilik liburu eta diskoak, baita mahai jolasak edota ordenagailurako jolas dibertigarriak beste askoren artean.

Euskarazko produktuen aukera zabal hau katalogo batean jasotzen da. Katalogoa bera, liburuxka formatuan elkarte denda ezberdinetan arki daiteke, Euskal Herrian 130.000 ale zabaldu dira.

Bestela, sarean dago denentzat eskuragarri www.katalogoa.org



Katalogoa.org webgunean dago eskuragarri liburuxka.

[katalogoa.org](http://www.katalogoa.org) web gunean. Katalogo honek gainera produktu guztiak zein adinentzat egokiak diren zehazten du

lagungarria izan daitekeen informazioarekin. Web bertsioko urte osoan zehar dago martxan eta edozein urte

sasoiaren egin beharreko opariak hautatzeko lagungarria izan daiteke. Gainera erabiltzaileek euren iritzia, gomendio eta esperientziak gehitu ditzakete produktu bakoitzari lotuta.

Batez ere gurasoentzako eta 16 urte bitarteko haur eta gazteentzako ehunka erreferentzia bilzen ditu 16. edizio honek.

Hain zuzen, lagungarria delako Lasarte-Oriako udaleko euskara zerbitzuak bideratuta, katalogoaren 2.000 ale, banatu dira 16 urtez azpiko kide bat dagoen herriko etxetara.

Arkupe tabernako pintxoak goxoena

Lehenengo pintxo txapelketako saria eman diote herritarrek Arkupe tabernari

Herriko lehenengo pintxo txapelketan parte hartu zuten hamabi tabernen artean bozkatuena izan da Arkupe tabernako pintxoak. Herritarrek egin dute epaimahaiaren lana eta euren bozkek erabaki dute irabazlea. Garaikurra eta Aterpeko bazkidetza kuota doan izango du urte betez. Horretaz gain, bi herritarrek Ramon Lago eta Jenifer Godoyk 100 eurotako balea eskuratu dute Aterpeko dendetan gastatzeko.

Maider AZURMENDI

Aterpeak Villa Mirentxun egin zuten asteazkenean lehenengo pintxo lehiaketako sari banaketa. Bertara parte hartu duten tabernetako ordezkariak gerturatu ziren.

Ramon Ormazabalek eskertu zuen Aterpearen baitan dauden taberna hauen esfortzua "txapelketa honetan mimo handia jarri zuten hamabi tabernekin eta hori aipatu da". Esker oneko hitzak ere herritarrentzat, tabernetara gerturatu eta ekimen honetan parte hartzeagatik "1.000 pintxo inguru saldu ziren beraz egitasmoa arrakastatsua izan dela uste dugu Aterpea elkartetik".

Udalari ere eskerrak eman nahi izan zizkion urte hasie-

ratik lantzen ari diren bidean lehiaketa hau bezalako ekimenak aurrera eramateko eskaintako babesagatik. Aterpearen nahia herritarrentzat erakargarria den eskaintza egitea delako besteak beste.

Aldi berean, Ormazabalek adierazi nahi izan zuen gutxi direla Aterpea elkartearen barruan dauden ostalariak, "bazkide gehienak merkataria dira eta animatzen ditugu gurera ostalari gehiago etortzea. Asmoa 2014. urtean ostalaritzaren egoera eta arazoak bereziki landuko dituen taldea eratzea izango da Aterpearen baitan".

Dioni Avila udal teknikariak ekimenak izandako arrakasta txalotu eta udalaren aldetik Aterpearekin lanean jarraitzeko konpromisoa agertu zuen.



Aterpea eta tabernetako ordezkariak pozik azaldu ziren txapelketak izandako harrera onarekin.

Sari banaketa egin baino lehen parte hartzaile guztiak irabazleak zirela esan zuen teknikariak "urte hasieran merkataritza alorrean Aterpearekin elkarlanean hasi ginenean ideia eta ekimen berri asko bururatzen zitzaizkigun eta txapelketa hau da horietako bat. Poliki-poliki errealitate bihurtzen ari dira ideia horiek eta kasu honetan denak zarete garaile, hamabi tabernekin elkarrekin aurrera eramandako ekintza arrakastatsua izan da eta herritarren gustukoa. Zorionak!".

Sari Banaketa

Pintxo irabazlea zein zen azaldu zuen Itziar Irurtzunen ondoren. Zenbaketa eginda, boto gehien jaso zituen pintxoak Arkupe tabernarena izan zela azaldu zuen Irurtzunen. Jenni Garcia jabeak jaso zuen txapelketa garaikurra eta Aterpeko bazkidetza urte betez doan izango du.

Bestalde, bozketan parte hartu zuten herritarren artean 100 eurotako bi bale banatu dira. Dirua Aterpeko komertzioetan gastatzeko izango da eta kasu honetan Ramon Lago

eta Jenifer Godoy herritarrei egokitu zitzaizkien.

Bukatzeko datorren urtean bigarren txapelketa antolatze-ko asmoa azaldu zuten Aterpeko ordezkariak "dena ondo bidean".



Saria jaso duen pintxoak.



Irakurle txokoan Harkaitz Canorekin solasaldi ederria egin zen asteartean.

Errealitatea, fikzioa eta beste gai batzuk

Azken bi hilabeteen antze-
ra, Lasarte-Oriako literatu-
zaletuek asteartean Irakurle
txokoaren saioa izan zuten.
Oraingoan, "Twist" nobela izan
zen hizpide eta Villa Mirentxu-
ra hurbildu ziren herritarrek
Harkaitz Cano idazlea lasarte-
riararren eskutik nobelaren
nondik norakoak ulertu ahal
izan zituzten.

Lehenik, Uxue Alberdiren
laguntzarekin taldeka bildu
eta landu zuten. Komunean
gai izan ziren aipatu zirenak,
hala nola, nobelaren estruktu-

ra edo errealitatearekin antze-
kotasuna. Horiek izan ziren
Harkaitz Cano idazleari egin-
dako galderen oinarri.

Canorekin solasean

Harkaitz Cano idazleak azaldu
zuen modura, berak ez zuen
bere burua nobela dokumental
bat idazten ikusten. Horregatik,
80. hamarkadako gertaerak,
Lasa eta Zabaleren kasua, oina-
rri hartuta fikzioa sortu zuen.
Nahiz eta "nahi gabe" erreali-
tatetik oso gertu dagoela iruditu
Lazkano pertsonaiaren kasuan,
esate baterako.

Liburuaren estruktura, elip-
sien zergatia, idazkera asime-
trikoa, pertsonaien
humanizazioa eta liburuan
jorratutako beste horrenbeste
gaiei buruz ere mintzo zen.
Hala nola, eleberriko hainbat
pasarte idazteko Zuzenbide
ikasketak balio izan ziotela ere
aipatu zuen saioeko hainbat
unetan edo "Bizitza intermiten-
teak" eleberraren azpituluar
buruz, ere hitz egin zuen.

Irakurle txokoko lagunek
gustura entzun zuten idazlea
eta haien galderak egiteko
aukera ere izan zuten.

Gabonetako jostailu guztiak

Betiñanik, aholkularitza


Aprovecha nuestros chollo-precios personalizatua gure bezeroei



Karmelo Etxegarai 2 (Benta Berni).
Donosti 943 22 79 10

Prim 59 (Donosti)
943 45 53 00

Avda. Letxumorro 86
(Irún) 943 45 75 10



Musikaz gozatzeko aukera ugari

Bihar arratsalde eta gauean, Lasarte-Oriako Zirkuito musikala izango da

Musikaz betetako arratsaldea izango dugu bihar Lasarte-Orian. Izan ere, Lasarte-Oriako Zirkuito musikaren eskutik, 19:00etatik gaueko ordu txikiak arte, estilo desberdinetako musikaz gozatzeko aukera izango baita. Erdiguneko bost tabernatan antolatu den jaialdian herritar guztiak haien gustuko musika aurkitzeko aukera izango dute. Lasarte-Oriako Zirkuito musikaleko antolatzaileek jaialdira hurbitzera gonbidatzen dituzte herritarak.

TXINTXARRI

Punk, rock and rolla, 80 eta 90 hamarkadetako musika... Zirkuito musikaren eskutik, bihar arratsalde eta gauean musika izango da nagusi Lasarte-Oriako erdigunean.

Zirkuito musikakal gure herrian 10 urtetan antolatu den Multimusikalaren testigua hartuko du aurten eta hurrengo urteetan "ahal bada" antolatzeke asmoa agertu dute antolatzaileek.

Zirkuituaren lehen edizio honetan Lasarte-Oriako erdiguneko bost tabernatan izango dira emanaldiak. Era honetara, Avenida taberna, Mendi Kafe-rock, Siglo 20, Jalgi Kafe Antzokia eta Zulo aretoan musika jaialdi honetaz gozatzeko aukera izango da.

Estilo desberdinak

Arratsaldeko 19:00etatik aurrera, musika estilo desberdinetako kontzertuak izango dira.

Lehenengo saioa Siglo 20 tabernan izango da. "Mr. Kostra" DJ-aren eskutik lehenik gruta sound musika izango da. Ostean, eta "Mr. Kalikuta"-k African beats doinuak

Avenidan berri, 19:30ean, punk bertsoiak eskainiko dituzte Lasarte-

Oriako "The Garax" taldeko gazteek.

Rock and roll eta boogie wogie doinuak dantzatu nahi dituenak, berri, Lee Juniorrek kontzertua izango du Mendi Kafe-Rock tabernan 20:00etan.

Soinu gogorragoak gustuko dituenak, 22:30etatik aurrera bi aukera ditu.

Batetik Jalgi Kafe-Antzokian, "Devhon" taldea izango da. Talde beasaindarrak trash metal eta gaur egungo metal doinuak eskainiko ditu.

Eta bestetik, "Ras" eta "Urbangrid"-ek Grindcore doinuez beteko dute Zulo.

Gau osoan

Ordu txikiak arte dantzan egon nahi duenak ere aukera izango du.

Gauerditik aurrera, Zulo aretoan DJ H.K.-ren saioa izango da.

Siglo 20-en aldiz, "Fredie Mercurio"-ren saioa izango da. Denboran atzera bidaiatuko dira tabernara gerturatzeko direnak, izan ere, 80 eta 90 hamarkadako musika eta elektro diskoaz betetako emanaldia izango da.

Antolatzaileek herritarak animatzen dituzte larunbatean musika jaialdi honetaz gozatzera.



Lasarte-Oriako "The Garax" taldearen punk bertsoiak izango dira bihar Avenida tabernan.



Zirkuito Musikala

AVENIDA TABERNA

19:30ean, "The Garax". Punk bertsoiak.

MENDI KAFE-ROCK

20:00etan, Lee Junior. Boogie woogie, rock and roll piano.

JALGI KAFE ANTZOKIA

22:30ean, "Devhon". Metal.

SIGLO 20

19:00etatik 22:00etara, "Mr. Kostra" eta "Mrs Kalikuta". Gruta sound eta African beats.
00:00etan, "Fredie Mercurio". 80 eta 90 hamarkadako elektro diskoa.

ZULO ARETOA

22:30ean, "Ras" eta "Urbangrid". Grindcore.
00:00etan, DJ H.C.

**ZIRKUITO
MUSIKALA**
ABENDUAK 14



LABURRAK.- ATLETISMOA.-

Kirol instalakuntzen alokairua

Kirolletako Udal Zerbitzuak 2014 urtean Kirol Guneko frontoia eta pista, Kiroldegiko pista, padel pista edo Trinketa urte osoan zehar, uztaila eta abuztua izan ezik, zenbait ordu eta egunetan alokatzeko aukera eskaintzen du.

Aukeran dauden orduak eta erabiliko diren arauak ezagutu nahi duten herritar edo elkarteek dagokien instalazioaren kontsulta egin dezakete.

Interesa duten erabiltzaileek izena, abizena, telefono zenbakia, bazkide zenbakia eta eskatutako eguna eta ordua instalazioaren harreraren eman behar dute abenduaren 18ra bitartean.

Kirol Zerbitzuak orduen banaketa zozketa bidez egingo du. Zozketa hori abenduaren 19an 19:00etan izango da Kiroldegian.

Lizentzia eskaerak

Ostadar SKT-k mendiko edo zikloturisten lizentziak tramitatu nahi dituzten herritarrei tramitazioa abenduaren 18a baino lehenago egin behar dutela gogoratu nahi die.

Lizentzien informazioa eta prezioak Ostadar SKT-ko bulegoan daude eskuragarri.

LOKEko atletak lehiatzeko prest

Gaur hasiko dute pistako denboraldia eta Espainiako txapelketa dute helburu

LOKEko atletak irailaren lehen hasi zituzten entrenamenduetan eta gaur arratsaldean emango diote hasiera pistako denboraldiari. Gazteak maila onean lehiatzea aurreikusten dute taldeko arduradunek eta gehienek martxoa aldera izango diren Espainiako txapelketetan dute burua.

Nerea EIZAGIRRE

Gaur arratsaldean, LOKEko atletismo sailleko lagunek haien pista estaliko lehen proba izango dute. "Lehen proba honek haiek duten txapelketa gogoa husteko balioko du. Irailetik entrenamenduetan dabilta eta txapelketetan lehiatzeko egunak kontatzen ari dira batzuk," azaldu du Oskar Goikoetxea entrenatzaileak.

Asteburu honetako txapelketa proba bat dela adierazi du, "Agian batzuk gutxieneko marka egin dezakete Espainiako txapelketetarako. Baina gehienek motorra martxan jartzeko balioko die".

Gainera, atleta gehienek, hamabost bat, parte hartuko

dute parte hartze libreko saio honetan eta "batzuentzat lehen proba izango da maila honetan" aurreratu du.

Taldea handitzen

Izan ere, kadete talde berria du LOKEK eta honek atleta taldea handitzen du. "taldearen oso gustura gaude. Gainera, infantil mailatik igo da neska talde bat," azaldu du.

Hala ere, "batzuk ez dute txapelketetan parte hartu nahi. Baina hemen egotea guretzat garrantzitsua da. Kirola egiteko datoz eta ez dute huts egiten".

Espainiako txapelketak

Beste mailetako atletei dagokionez, "nire ustez atleta askok dute aukera aurrean egoteko



Gogor entrenatzen dute LOKEko atletak txapelketetan ederki aritu ahal izateko.

eta iaz baino hobeto ibili beharko lirake," aipatu du.

Era berean, helburua martxoan izango den Espainiako txapelketa dela aurreratu du. "Planifikazioa martxoan ongi egoteko egin dugu. Kadete mailatik gora, gehienek Espainiako txapelketan egoteko aukerak dituzte. Beraz, helburu horretarako ari dira prestatzen".

Baina arazoak izan dituzte lesioekin aurrendenboraldi honetan, "Periostitisa, oinekin arazoak,... Ez dira lesio larriak baina aste bat edo bitan entrenatzeari utzi behar izan

diote eta horrek planifikazioa atzeratzen du".

Azkenik LOKEko entrenatzaileak onartu duenez, "Maila altuetan dabiltzanak emaitza onak lortzea gustatuko litzaiguke, egin duten lanaren eta esfortzuaren saria izango bailitzateke. Batzuk bost egunetan entrenatzen dute. Haien helburua Espainiako txapelketa edo finalista izatea izan daiteke eta hori egia bihurtzea gustatuko litzaiguke, ez klubaren onurarako, haien onurarako baizik, egiten duten lana handia baita".

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 14

Michelin, 10:30ean
Ostadar-Ostadar B
I. infantil

Michelin, 12:15ean
Ostadar-Getxo
Euskal Liga, Kadeteen Ohorezko maila

Michelin, 14:00etan
Ostadar-Ekintza
Infantil Txikia, partehartzea

Gal, Irun, 15:30ean
Real Union-Ostadar
Erregional Ohorezko maila

Michelin, 17:30ean
Texas Lasarteerra-Ostadar
I. Erregionala

Igandea 15

Michelin, 12:00etan
Ostadar-Billabona
2. urteko alebinak

Karla Lekuona anexoa, Oiarzun, 12:45ean
Intxaundi-Ostadar
Emakumezkoen Liga

Felix Garin, Donostia, 13:00etan
SANSE-Ostadar
Jubenilen Ohorezko maila

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 13

HERRIKO TXAPELKETA
19:45ean, Izkña-Buenetxea

20:45ean, Trumoi-Urdaneta H.K.

Larunbata 14

HERRIKO TXAPELKETA
09:15ean, Izarra-Balardi
10:15ean, Arkupe-Ilargi
11:15ean, Txindoki-Viña del Mar
12:15ean, Arizta-El Punto

Artunduaga kiroldegia, Basauri, 16:15ean
Soloarte-Aldaz H.K. Nazional III. maila

Igandea 15

HERRIKO TXAPELKETA
10:30ean, Arizta-Buenetxea
11:30ean, Arkupe-Viña del Mar



SASKIBALOA

Larunbata 14

Hondartza kiroldegia, Hondarribi, 18:00etan
Carnicas San Marcial Txingudi-Ostadar SKT Nesken junior maila, parte-hartzea

Igandea 15

Paco Yoldi, Donostia, 12:00etan
Bera Bera-Ostadar SKT
Nesken kadete maila, errendimendua

PILOTA

Larunbata 14

Ametza trinketea, Irua, 09:15ean
Intza-Oiarpe3
Eskuz banaka jubenila. Trinketa txapelketa
Ametza trinketea, Irua, 14:00etan
Urnieta I-Intza
Eskuz banaka kadetea. Trinketa txapelketa



IGERIKETA

Larunbata 14

Zarautz, 10:00etan eta 17:00etan
Buruntzaldea IKT-ko infantil, junior eta absolutu mailako igerilariak
Gipuzkoako Klubaren kopan parte hartuko dute.

Igandea 15

Zarautz, 10:00etan eta 17:00etan
Buruntzaldea IKT-ko infantil, junior eta absolutu mailako igerilariak
Gipuzkoako Klubaren kopan parte hartuko dute.

ATLETISMOA

Ostirala 13

Anoetako belodromoa, 18:00etan
LOKEko atletak parte hartze askeko probak dituzte.

Larunbata 14

Hernani, 10:30ean
Landaberri eta Sasoea-Zumaburu ikastetxeko gaztetxoek eskolarteko alebin eta infantil mailako proba dute.

Donostia, 20:00ean
Herriko atletak #Librelasterketan parte hartuko dute.

Zizurkil, 22:30ean
Herriko atletak 13. gau kroसान izango dira lehiak.

JUDO

Larunbata 14

Iruña, 09:30ean
LOKEko Fermin Balda eta Haritz Urdangarin kadeteek Espainiako Kopako jardunaldian parte hartuko dute.

Igandea 15

Hernani, goiz osoa
LOKEko Asier Sagasti, Josu Olmos eta Mario Garrido senior mailako Euskadiko txapelketan izango dira lehiak.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 14

Atsokabar parkea, 11:00etan
Buruntzazpi txirrindularitza

eskolako infantil eta alebinek saioa dute.

Antonio Elortza belodromoa, 15:45ean
Buruntzazpi txirrindularitza eskolako gazteek pistako Gipuzkoako trofeoeko lehen jardunaldia dute.

Igandea 15

Legazpi, 09:30etik aurrera
Buruntzazpi txirrindularitza eskolako gazteak Legazpiko III. ziklokrosa proban izango dira.

ERRUGBIA

Larunbata 14

Asti, Zarautz, 10:30ean
Beltzak Ostadar Jalai eskolarteko infantilak hiruko txapelketa bat izango du.

Ayete, Donostia, 12:00etan
Ati. San Sebastian-Beltzak Ostadar Gure Etxea Euskal Liga, kadeteak

Igandea 15

Mutriku, 10:30etik aurrera
Beltzak Ostadar Jalai Errugbi eskolako gazteek topaketa izango dute.



Agenda

Gaur, ostirala 13, 22:00etan, Manuel Lekuona kultur-etxean



Ipuinen koloreak

Antzerki amateurra Kukuka-rekin elkarlanean programatua. Abarka antzerki taldeak "Biba zorrien izurritea" lana eskainiko du. Ander Lipusen gidaritzapean Sarrionandiaren mikroipuintan "Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako" oinarritutako lana eskainiko dute. Ipuinak kolore askotakoak dira; batzuk oso dinamikoak eta espresiboak dira eta beste batzuk, ordea, sakonagoak. Sarrera, 5 euro.

esker, hip-hopaz gozatzeko aukera izango da. Sarrera 8 euro. Ostean, DJ Pata-ren saioa ere entzun eta dantzatu ahalko da.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Osteguna 19, 19:00etan

Udal Musika eskolako ikasle eta irakasleek Gabonetako kontzertua eskainiko dute.

AMA BRIGITARREN KOMENTUA

Ostirala 20, 19:30ean

Danok Kide Elkarteak antolatzen dituen Musika Topaketan saioen barruan, Marife Nogales sopranoak eta Ana Belen Garcia piano joleak ahotsa eta organo kontzertua eskainiko dute. Doan.

Ikastaroa

GAZTELEKUA

Larunbata 14, 10:30ean

Emagin elkarteak 16 eta 30 urte bitarteko emakume gazteei zuzendutako autodefentsa feminista tailerra eskainiko da. Emakumeenganako indarkeriaren aurkako ekitaldien barruko ekintza da.

Ipuin-kontalaria

SALTO GELA

Larunbata 14, 11:30ean

Carmen Arrazola idazleak "Ireneren Unibertsoa" ipuinaren kontaketa egingo du.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Abendu bukaera arte

"Santo Tomas" eta "Olentzero" jaialdietako argazki zaharren erakusketa izango da ikusgai.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 15, 17:00etan

Haurrentzako zinea atalean, "Percy Jackson y el mar de los monstruos" fantasiako filmaz gozatzeko aukera izango dute etxeko txikiak. Sarrera, leihatilan 3,60 euro; internet bidez, 3,18 euro.



Igandea 15, 19:30ean

Helduentzako zinea, "Drive" filma eskainiko da. Sarrera, leihatilan, 5,85 euro; internet bidez, 5,30 euro. Gaztelaniaz.



Zirkuitu Musikala

Larunbata 14

Lasarte-Oriako hainbat tabernatan estilo desberdinetako musikaz gozatzeko aukera izango da.

Musika

ZULO ARETOA

Ostirala 13, 22:30ean

"Putopia" antzerkia eskainiko dute.

Sarrera, 3,50 euro. Ostean, DJ Plan-en eskutik, reggae eta dancehall soinuez gozatu ahalko da.

Igandea 15, 21:00etan

Japoniako Agonize eta Serbiako Deaflock taldeen trash metal kontzertua izango da. Zumaiaiko Trashgresion taldea ikusteko aukera ere izango da.

Ostirala 20, 22:30ean

El Coleta eta artista gonbidatu bati



Herritarren txokoa

Gure esku dago

Gure esku dago, ezta? <http://gurees-kudago.net/eu/>

Aterpeako loteria

Aterpea Merkataritza elkarteak jakin arazten du Gabonetako loteria salgai duela. Elkarteak komertzioetan erosi daitezke txartelak.

Danok Kideren jaiotza lehiaketa

Danok Kide elkarteak, aurten ere, jaiotzen lehiaketa antolatzen du.

Hauk direla parte hartzeko oinarriak: jaiotzak gehienez, 80x60 zm-ko neu-riak izan behar ditu eta, batez ere, ez da onartuko hondo sendorik ez duen lanik. Aurreko urteetako lehiaketetara aurkeztutako proiekturik ere ez da hartuko.

Jaiotzarekin gutun-azal batean egi-leen izenak sartu eta azalean parte-hartzaile edota taldearen adina idatzita eman behar da.

Jaiotzak aurkezteko egunak abenduaren 20 eta 21a izango dira. Danok Kide elkartearen egoitzan Blas de Lezo kaleko 11 zenbakian utzi beharko dira 17:00etatik 19:00etara.

Abenduaren 29an saribanaketa egingo da.

Lasartearra elkarteak loteria

Lasartearra elkarteak bazkideei eta lagunei jakinarazten Gabonetako loteriako txartelak salgai dituela. Hauk eskuratzeko, elkarteak egoitzara, Erribera Kalea 10 atzealdea, hurbildu behar dira interesatuak.

Ostadar SKT-ko loteria

Ostadar Saiarre Kirol Taldeak jakin arazten du, Gabonetako loteriako txartelak salgai dituela, Geltoki kalea 4-ko egoitzan.

Loteria zenbakia 04801 da. Txartelak 2,50 eurotan dira eta astelehene- tik ostiralera 18:00etatik 20:00etara esku- ratu daitezke.

Marrakzi eta margo klaseak

Lasarte-Oria Bizilagun Elkarteak jakin- arazten du, marrakzi eta pintura klaseetan izena emateko aukera dagoela. Klaseak asteazken eta ostiraletan dira, 18:30etik 20:30era Manuel Lekuona kultur-etxeko 2. solairuan. Interesa duten herritar- rak gerturatu daitezke klase orduetan.

Hemeroteka

Duela 1088 ale

Michelingo kirol instalazioen erabilerari buruzko artikulua argitaratu zen 1995eko abendu- duan. Honetan instalazioen erabilera eta aurrera begirako proiektua aztertzen ziren.

Udalak Michelingo

kiroldegia erosi ostean, erabiltzaile gehiago zituela aipatzen zen. Hala ere, kirol elkarteek ordu dexte dituztela ere azpimarratzen da eta horrek erabiltzaileen orduetgia laburtzen zuela. "Baina hori erabiltzen arabera neurtzen da. Jendearen erantzuna nolakoa izango den jakin arte kirol patronatuak horrela jarraitzea proposatu zuen" azaldu zuen Karlos Altuna, kiroldegiko gerenteak.

Honetaz gain, kirol gunean egin beharreko egokitze lanak ere ageri ziren eta Udalak 1995eko aurrekontua aldatu eta 50 milioiko partida gehitu behar izan zela jakin arazten zen. Aldagelen egokitzapen lanak lehenetsi ziren, nahiz eta bere osotasunean ez izan. Izan ere, bertan Michelineko jangela zegoen eta beste hiru urte itxaron behar zituen Udalak aldagelen eraikuntza bere osotasunean eskuratzeko. Ondoren, instalazioen argiteria eta itxitura berrantolaketa egingo zela aipatzen zen artikuluan.

Atletismoko pista modularra, futbol zelaiaren belar artifiziala jartzea edo pilotalekuan zenbait aldaketa egitea ere aurreikusitako zen orduan.

Gainera, Jaurilaritzaren laguntzarik gabe Udalak gastua bere gain hartu zuela ere aipatzen zen.

Hau guztiaz gain, herrian zegoen kirol dinamika handia zela ere azpimarratzen zuen Karlos Altunak, "beste herrietan ez bezala, haurrei dagokionez behintzat [...] Oro har, eskapate handia dago".



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Gabonetan argi gehiago

Udala eta Aterpearen arteko elkarlanari esker argiztapena dago hainbat kaleetan

Udala eta Aterpearen elkarlanari esker herriko kale gehiagotan egongo dira aurten Gabonetako argiak. Astelehene eguerdian agerraldia egin zuten udal eta Aterpeako ordezkariak elkarlan honen berri emateko. Aurten aurrekontua 16.000 euro ingurukoa izan dela azaldu zuten.

TXINTXARRI

Aterpea herriko merkatarien elkartearen eta udalaren ekimenez aurten Gabonetako argi gehiago izango dira Lasarte-Oriako kaleetan.

Argiztapena gehitzeko burututako elkarlan prozesua azaldu nahi izan zuten astelehene eguerdian egindako agerraldian.

Aterpearen izenean Ramon Ormazabalek azaldu moduan, argi gehiagoren beharra ikusten zuten herriko ostalari eta merkatariek. Horrela gaia udalarekin izandako bileretan landu zuten eta bi aldeen esfortzua merezi zuela iritzita, Jaurilaritzak Merkagune programaren bitartez eskaintzen duen dirulaguntza eskatu zuten Aterpeak udalaren bermearekin. Azkenean, laguntza lerro horri esker jasotako dirua eta udalaren aurrekontua gehituz argi gehiago alokatzea lortu da.

Aurten 16.000 euro inguru gastatu dira argiztapenean. Kontsumo baxuko led argiak

direla aipatu zuen Ana Prieto udal Zerbitzuetako batzorde buruak agerraldian. "Kontsumoa udalak asumituko du". Guztira, kale Nagusian, 5 argi arku jarri dira eta 22 zuhaitz argiztatu dira; Geltoki kalean, 8 arku ipini dira; Hipodromo etorbidean 10 faroletan dago argiztapena. Uistin kalean eta Donostia etorbidean beriz, zuhaitzetan ipinitako argiek jai-giroa eta gabon-giroa ematen lagunduko dutela aipatu zuten.

Aurreko urteetan bezala, zenbait argidun irudi ipiniko dira Brigidatarren komentuaurrean kokatu ohi den jaiotzan eta Udaletxearen fatxadan "Zorionak" argidun bat jarri da eta antzeko beste batek egingo du argi Atso-bakar egoitzan.

Argi gutxi jarri diren urte hauetan herritar askoren eskaera izan dela onartu zuen udal ordezkariak, "Gabonetako argi gehiago nahi zuten jendeak. Udalak bere aldetik, krisi ekonomiko garai honetan dirua beste arlo batzuetara bideratu nahi izan duela agian ez da ulertu".



Astelehenean piztu ziren Gabonetako argiak, aurreko bi urteetan udalak soilik 6.000 euro gastatu zituen apaingarri hauetan.

Birziklapena

Prietok datorren urterako beste apaingarri mota batean pentsatu daitekeela esan zuen "herri askotan material birziklatua erabiltu apaingarriak egiten ari dira eta aukera polita izan daiteke herritarrekin batera horrelako ekimen bat gauzatzea".

Aterpeak bere aldetik, herriko komertzioa dinamizatzeke beste kanpaina batzuk martxan jarri dituela ere azaldu zuen Ormazabalek "Gabonei lotuta egiten den kontsumo herrian gera dadila nahi dugu". Herritarrei Lasarte-Oriako dendatan erosteko deia luzatu nahi izan zieten.

"Datorren urtean beste auzo batzuetan ere argiak egon daitezten lan egingo dugu" adierazi nahi izan



Udala eta ostalari eta merkatarien elkartearen arteko elkarlana aurkeztu zuten.

zuen Ormazabalek Aterpearen izenean.

Bestalde, Dioni Avila merkataritza alorreko udal teknikariak elkarlan honek duen garrantzia azpimarratu nahi izan zuen. Hirugarren sektorea da nagusi Lasarte-Orian eta hau zaintzeko aha-

legin berezia egin behar du udalak krisi ekonomiko garai honetan.

Ofizialki astelehenean bertan 17:30ean piztu ziren Gabonetako argiak eta 00:00ak bitartean hala izango dira egunero Errege eguna pasa arte.



Oria etorbidea 12
20160 Lasarte-Oria

URTE ZAHAR GAUEAN:

AFARIA

helduentzako menua 66€

umeentzako menua 30€

KOTILIOI FESTA 35€

Akopa eta hiza-mizkak barne

ERRESERBAK eta INFORMAZIOA

TEL.: 943 049933

eljardindevillaoria@yahoo.es

Urtebetetzeko
meriendak
festak
antolatzen ditugu
Ostegunetan
PINTXO POYE

ZULO

Asteazkenetik

Igandera

17:00etatik

aurrera

IREKITA

Zulo Aretoa: Hipódromo Etorbidea 11, Lasarte

WWW.SALAZULO.COM